

NOLA EGIN AURRE ZAINTZEN
ARI NAIZEN PERTSONAREN

APATIARI ETA AXOLAGABETASUNARI

Dementia dutenek, maiz, nortasun-aldaketa izaten dute, hots, apatia, motibazio- eta gogoberotasun-galera eta gauzekiko interesik eza. Horrek, orobat, harremanetan eragiten du, hots, axolagabetasuna, hoztasuna, distantzia emozionala eta pertsonetikiko interesik eza.

Gomendatutako estrategiak

- ▶ Estimulatu behar duzu, baina antsietaterik ez sortzen ahaleginduz.
- ▶ Esaiozu jarduerak egin ditzakeela, gonbidatu, inposatutako zerbait balitz bezala har ez dezan.
- ▶ Ahalegindu proposatzen zaizkion jarduerak izan daitezen, batetik, hark egiteko modukoak, eta, bestetik, haiek egitean gozatzeko modukoak.
- ▶ Esaiozu jarduerak egiteko, bere gustu eta zaletasunen arabera atseginak egiten zaizkionak; lehenago gustura pasatzen zuen haiek egiten eta erakargarriak zitzaizkion.
- ▶ Hasi lan txikiekin eta, ongi egiten baditu, zabaltzen joan.
- ▶ Eskatu laguntza lan errazak egin ditzan eta ahalegindu etsipena sortuko dioten lan konplexuegiak ez proposatzen.
- ▶ Has daiteke begira egon beharreko lanekin (besteek zer egiten duten ikusteko modukoekin) eta segitu berak egin beharrekoekin.
- ▶ Lana egiten hasi eta berehala bazter uzten badu, ez iezaiozu erriatarik egin; zoriondu egindakoaz.
- ▶ Komunikatu berarekin, eta ahalegindu haren gustukoak diren gauzez mintzatzen eta ukipenaren, laztanen, besarkaden... bidez hurbiltasuna eta afektua bereziki erakusten, betiere ukipen fisikoak ez badio gaitzespenik edo antsietaterik sortzen.